

ITZULPENETARAKO ERREMINTA PRAKTIKOAK

Hizkuntza-teknologiak garatzen ari diren eran, gero eta baliabide gehiago daude idatzizko testuen itzulpen automatikoak egiteko. Erreminta horien bidez, euskaraz ez dakiten herritarrek aukera daukate euskarazko testuak ulertzeko, betiere kontuan izanik itzulpen automatikoak beti ez direla akatsik gabeak. Dokumentu honetan jaso dira eguneroko itzulpenetarako tresna praktiko batzuk.

ITZULTZAILE NEURONALAK

Kalitate aldetik salto handia egin dute euskarazko itzulpenek azken urteetan. Adimen artifizialean oinarritutako itzultzaile neuronalek ekarri dute hobekuntza hori. Hedapen handienekoak bi dira:

- **Itzuli.** Eusko Jaurlaritzarena da. *Itzuli.eus* webgunean edo telefonoko aplikazioetan dago.
- **Elia.** Elhuyar fundazioarena da. *Elia.eus* webgunean edo telefonoko aplikazioetan dago.

Elia-k hizkuntza hauekin egiten ditu itzulpenak: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, katalana eta galegoa. *Itzuli*-k, berriz, honako hizkuntza hauekin: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa.

Bi aplikazioek antzeko funtzionamendua daukate, eta itzuli beharreko testua bi eratan sar daiteke:

- **Kopiatu.** Itzuli beharreko testua digitalean edukiz gero (telefonoko mezu bat, mezu elektronikoa bat...), kopiatu, eta aplikazioan edo webgunean itsatsi; behin mezua sartuta dagoelarik, adierazi zein hizkuntzataratu itzuli nahi den, eta segundo gutxian itzuliko du.
- **Kamera bidez sartu.** Telefonoan aplikazioa jaitsita, *Itzuli*-k eta *Elia*-k aukera ematen dute testua kopiatu beharrean kameratik sartzeko. Adibidez, paperean dagoen mezu bat itzuli nahi bada, kameraren ikurra sakatu, eta itzuli nahi denari argazki bat egin; hortik testua identifikatuko du aplikazioak, eta itzuli egingo du. Gordetako argazkiekin ere egin liteke.



GOOGLE LENS

Ez du itzultzaile neuronalek adinako kalitaterik, baina itzulpen azkarrak egiteko tresna baliagarria da *Google Lens*. Zer abantaila du? Batetik, itzultzaile neuronalen aldean, hizkuntza gehiagotarako itzulpenak egiten dituela; bestetik, argazkirik atera gabe, kamerarekin enfokatu orduko pantailan bertan egiten duela itzulpena. Bi aldeko txanpona, beraz: itzulpen ez hain onak, baina azkarxeagoak.

Aplikazioa erabiltzeko, *Google* aplikazioa deskargatu behar da *GooglePlay* edo *AppStore* guneeetan. Behin aplikazioa irekita, kameraren ikurra sakatu, eta *Itzulpena* botoia sakatu beheko menuan. Itzuli nahi dena enfokatu kamerarekin, eta bi aukera daude: batetik, argazkia atera, eta itzulpena ikusi; bestetik, argazkirik atera gabe, itzuli beharrekoak enfokatu ahala pantailan itzulpenak ikusi.

Googlek badu itzulpenetarako beste aukera bat ere, *Google Translate*, webgunetik edo aplikaziotik erabil daitekeena, testuak kopiatuta. Hizkuntza ugaritarako itzulpenak egin daitezke, baina, itzultzaile neuronalarekin konparatuta, euskarazko testuen itzulpena ez da horren egokia izaten.



TELEGRAM

Mezularitzako aplikazioa da Telegram, Whatsappen gisakoa, baina badu abantaila bat hizkuntza aldetik: aukera ematen du mezuak automatikoki itzultzeko. Horretarako, lehenik aktibatu egin behar da aukera: *Ezarpenak* sakatu, *Hizkuntza* atalean sartu, eta piztu *Erakutsi itzultzeko botoia*.

Behin aukera martxan dagoela, mezuak jasotzean, itzultzeko eska dakioket aplikazioari: mezuaren gainean sakatu (Iphoneetan, sakatuta eduki), eta menuan *Itzuli* aukera sakatu. Berehala itzuliko du mezua hautatutako hizkuntzara. Jatorrizko hizkuntza automatikoki identifikatzen du gailuak.



Euskarazko testuak itzultzean ez badu hizkuntza identifikatzen, esan nahi du Telegramen bertsio zaharkitua dela. Nahikoa da *GooglePlay* edo *AppStore* guneeetatik azken bertsioa deskargatzearekin.